

EXTREMADURARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Extremadurako bideo eta poesiak, gaur, Sandiusterrin

■ Arratsaldeko zazpitan hasiko dira ■ Bihar egun osoko festa izango da: Extremadurako produktuak, dantzak...



Virgen de Guadalupe dantza taldea, iazko festan.

EXTREMADURARI buruzko jardunaldi eta ekitaldiek bederatzigarren edizioa dute aurten, Hernanin. Aurreko urteetan arrakasta haundia izan dute, eta aurten ere hala izatea espero dute antolatzaileek, eguraldiak laguntzen badu behintzat.

ARTISAU LANAK ETA JATENA

Hurdesetako xextoak eta Guadalupeko kobrezko lanak egongo dira saltzeko. Degustaziorako aukera ere izango da, gainera: gazta, txorixo eta urdai azpikoak, gozoak... denak

Extremadurakoak.

URBIETA KALEAN

1998 arte Tilosetan egin izan da festa. Ordu ezkerro Urbieta kaleko kirol gunean (Latxunbe Berri aldera dagoen futbol zelaian). □

EGITARAUA

Gaur, larunbata

19:00etan: Extremadurari buruzko bideoak. Sandiusterrin. Poesia errezitala Gañan, Sañudo, Perez eta Davilaren eskutik.

Bihar igandea

10:00etan: Extremadurako produktuak salgai; Guadalupe eta Las Hurdeseko artisau lanen erakusketa. Urbieta Kalean (feria jartzen den inguruan).

13:00etan: Virgen de Guadalupe dantza taldearen emaldia. Urbieta kalean.

17:00etan: Virgen de Guadalupearen bigarren dantza. Urbieta kalean.

Buruntzaldeko abesbatzen topaketaketa, gaur Hernanin

■ Kantuz, Ozenki, Alboka eta Alberto Agirre abesbatzak ariko dira kantuan

■ 17:00etan kalez kale ibiliko dira.

■ 20:00etan parrokiaren eskeiniko dute kontzertua lau abesbatzek eta Hernaniko Txistulari bandak.



Telemar

ITXASTELE S.L.

Telyco denda

Elkano 13, HERNANI

☎ 943 33 26 00

- ⇒ 'Telefonika'ko banatzailea
- ⇒ Movistar
- ⇒ Zentralitak
- ⇒ 'Centrex'
- ⇒ Faxak
- ⇒ Telefono altak
- ⇒ Telefonía mugikorra
- ⇒ "Via digital", inalanbrikoak,...

Eskaintza **119.000 pta.**

SERIE MEGA ATHLON: Asus A7V plaka, CD irakurlea x52 LG, Sounblaster 128 PCI soinu txartela, Barne Modem a 56 kb, Genius Scroll arratoia, PS/2 teklatura, 240 Wko altabozak, 15" Daewoo Monitorea, 1000 Mhz tako K7 prozesadorea.

Entitate finantzieroen 20.000 pta eta Eusko Jaurlaritzaren 25.000 pta deskontatu ondorengo azken prezioa. %16 BEZ a sartu gabe.



EUSKAL GIROA

Igande eta jai egun guztietan dantzaldia
19:30etatik aurrera.

OIALUME AUZOA - 943 55 29 38

Karobi Elkartean batzar nagusia, bihar

■ Bihar, igandea, goizeko 09:00etan, elkartean bertan.



Karobiko bazkideak inaugurazioko afarian.

KAROBI Elkarteko (Latxunbe Berriko elkarte berria) batzar nagusiari goizeko 09:00etan emango zaio hasiera. Bigarren deialdia, berriz, 09:30etan izango da.

BOST PUNTU

- 1) Aurreko akta irakurri.
- 2) Diru kontuak eta balantzea.
- 3) 2001eko aurrekontu eta kuota.
- 4) Egoitzako obren azalpenak.
- 5) Eskari galderak. □

Txirrindulari gazteentzako probak, gaur Ibarluzen

■ Alebin eta infantilentzat ■ Arratsaldeko 16:30etan.

JOOC Peña Otaño taldeak antolatuta gazteen txirrindulari probak jokatu dira gaur Hernanin. Hernanitik Irun arterainoko herrietako neska mutilek hartzen dute parte, astero herri batean.

10 ETA 15 KILOMETRO

Alebinek 10 kilometro egingo dituzte; infantilek, berriz, 15 kilometro. Zirkuitoa Ibarluzeko poligonoan barrena osatuko dute. Gaur, 50 bat gazte espero dira. □

ERRUGBIA

Kadeteak txapeldun, gaur irabazten badute

■ Arrasateren kontra, Landaren, 11:15etan.

HERNANIKO errugbilari gazteak punta-puntan dabilta aurten. Kadete Ligan hernaniarrak txapeldun izango dira gaur Arrasateri irabazten badiete.

JUBENILAK TXAPELDUN

Jubenilak ere Ligako txapeldun gelditu dira aurten. Lagunarteko partidua izango dute gaur Landaren 16:30etan, Anglet Olympiquen kontra.



Antziola-Motor

Zerbitzu Ofiziala

- Kotxe berri eta aukerakoen salmenta
- Tailer mekanikoa, elektrizitatea eta elektronika
- Aseguruen gestioa
- Finantziarioak
- Kotxeak jaso eta leku berera itzultzen ditugu



Antziola auzoa 12 - Tel. 943 55 57 72 - Faxe 943 55 21 96 HERNANI

Plisti-plasta plisti-plasta, Korrika!!

■ Korrika Txikian, arratsaldean ikastetxe guztietako 1.500 umek eman zuten buelta herri barru osoan ■ Iluntzean, korrika eta arraunean joatekoa zen lekukoa.



Korrika Txikia Kale Nagusian gora, plazara bidean. Gero txokolada izan zuten indarrak berritzeko.

KORRIKA Txikiak ireki zizkion ateak 12garren Korrikari. Ikastetxe guztietako ikasleak ia ordubeteko korrikaldia egin zuten: udaletxe atzetik atera, Kardaberaz eta gero Izpizuatik Zinkoeneara, Txirrita, Urbieta, Latxunbeherri eta rotondan buelta, osteraz, Elkanotik Lize-

agaraino, Larramendi... eta Kale Nagusian gora plazaraino.

OMENDUEK, PANKARTA Lekukoa ikaslez ikasle joan zen; pankarta, berriz, Korrikak omenduko dituztenek eraman zuten: euskara ikasten edo hobetzen ari direnek. Omen-

duek buelta osoa egin behar izan zuten eta aurpegiak ondo gorrituta iritsi ziren plazara.

KORRIKA ILUNTZEAN Martindegin hartu zuten hernaniarrek lekukoa eta ia Goizuetaraino eraman. Gero afariak izan ziren eta festa Ereñotzun. □

Celayari omenaldia, atzo Donostian

■ Hernaniarraren obra bilduko duen lanaren lehen tomoa aurkeztu zuten.



Anparitxu, Leteren ondoan, eskerronezko hitzak irakurtzen.

GABRIEL Celaya omenduz bukatu zen poeta hernaniarrari buruzko sinposiuma. Hiru egunetan izen haundiko literatur adituek hitz egin dute. Atzoko ekitaldian, Luis Garcíak poetaren obra osoa bilduko duen proiektua txalotu zuen; obra delako idazleari bizirik eusten diona. Xabier Lete kantari eta poetak ere Celayaren aldeko hitzak izan zituen. Azkenik, Anparo Gaston Celayaren alar-gunak eskerrak eman zizkien denei.

Interneten Celayari buruzko web orria osatua jarri dute: <http://gipuzkoa.net/Celaya.htm>.

ASTEBURUKO PARTIDUAK

LARUNBATA

■ ERRUGBIA

Jubenilak Lagunartekoa
Landaren 16:30etan
Hernani-Anglet Olympique
Kadeteak. Euskal Liga
Landaren 11:15etan
Hernani-Arrasate RT
Infantilak. Gipuzkoako Liga
Landaren 10:30etan
Hernani-Arrasate

■ FUTBOLA

3garren Maila
Zubipen 17:00etan
Hernani-Baskonia
Gorengo maila
Zubiaurren 16:30etan
Zestua-**Hernani**
Gazteen Liga Nazionala
San Miguelen 17:00etan.
Zalla-**Hernani**

IGANDEA

■ FUTBOLA

Emakumezkoen Kopa
Martutenen 17:00etan.
Vasconia-**Hernani**
Gazteen 2. Maila
Zubipen 10:30etan
Hernani-Lasarte
Kadeteen Ohorezko Liga.
Zubipen 16:30etan
Hernani-Lagun Onak

■ PELOTA

UDABERRI TXAPELKETA. FINALA
Jubenilak
Intxaurren 11:30etan
Alvarez-San Sebastian
Azkoitia
Nagusia
Intxaurren 11:30etan
Erroizenea-Oteiza
Aizarnazabal
HERNANIKO PALA TXAPELKETA
Kiroldegian 11:30etan (Finala)
Rekalde-Arluziaga
Aierbe-Esteban

ADARRAGA

Konfitegia
Pasteldegia

Urbieta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10



■ FUTBOLA - HIRUGARREN MAILA

Hernani-Baskonia, gaur

■ 18garren djioa, mailaz jeisteko postuan ■ Arratsaldeko 17:00etan jokatuko du partidua.

■ HITZ BITAN



Biteriko areto nagusian oso eserleku gutxi gelditu ziren hutsik.

✓ MUSIKA

Ume eta guraso asko osteguneko bandaren kontzertuan. Hernaniko bandak antolatutako umeentzako kontzertuak erantzun ona izan zuen.

✓ OSASUNA

Hitzaldia tripetako gaitzak dituztenek zer eta nola jan behar dutenari buruz. Crohn eta Colitis Ulterosa duten gaixo elkarteak hitzaldia antolatu du Donostian gaitzaren neurriko elikadura zein den azaltzeko. Hitzaldia Juan Jose Arrizabalaga doktoreak emango du. Elkarteko kide batek Kronikari esan dionez, Hernanin ere badira gaixotasun hori dutenak. Hitzaldia gaur, larunbata, arratsaldeko 17:30etan da, Donostian, Arrasate kaleko Kutxaren aretoan.

✓ KOTXE KARABANA

Astearteko greba deialdia dela-eta kotxe karabana egingo da gaur. Amnistiaren Aldeko Batzordeek antolatuta auzoz auzo ibiliko da. Hernaniarrei joateko deia egiten diete. 12:00etan Atsegindegian. □

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

►Taxiak: 943 550093
►Udaltzaingoa: 943 333288
►DYA: 943 464622
►Autobusak 943 556662
►Anbulatorioa: 943 557750
►Jokalaria anonimoak 943 331103

✚ FARMAZIAK

►Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
►Gauetz: Ansa
Andoain, Ondarreta
☎ 943 591302

Fono tel

norte

Honako produktu
hauek aurki ditzakezu
gure denda berrian :

- 1050

- Interneta

- Telefonía mugikorra

- Telefonía fijoá

- Zentralitak

- Faxak



Banatzaille Ofiziala

Euskaltel

Kardaberaz kalea 68
Tel.: 943 33 60 25
Faxa: 943 33 50 79
20120 Hernani